2000. urtean ekin zitzaion Iturriozko Dorretxearen inguruko ikerketa-lanari, dena ere ondarea berreskuratzeko asmotan. Helburu hori bitarteko, Kutxaren Gizarte-Ekintzak, Oiartzungo Udalarekin eta Aranzadi Zientzi Elkartearekin elkarlanean Gaztekutxaren Auzolandegi bat antolatu zuen Gipuzkoako gazteentzat. Jarduera honen bitartez, gazte unibertsitarioek, Euskal Herriko Arkitektura Eskolakoak eta Deusto-Donostia Unibertsitateko Humanitate fakultatekoak, aukera izan zuten dorreko kultur ondarea berreskuratzeko azterketa-programa batean parte hartzeko. Egin zuten lanari esker, dena musu-truk, ezabatu ahal izan ziren jatorrizko paramentuak eta baita egiturak aztertzea galarazten zuten barrualdeko elementuak, hormak, zaharberritzeak, altzariak... Programa honekin batera, heziketa-programa bat ere jorratu zen, gazteak ondasun higiezinak ezagutzen eta aztertzen trebatzeko asmoz[6].

5. ORELLA, J.L. ETA ESTEVEZ, X., ETA ALI: Casa-Torres y Palacios de Gipuzkoa. Gipuzkoako Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargo Ofiziala. 1996, 289 – 296 orr.

6. Proiektu eta heziketa-programari buruz informazio handiagoa izateko, baita Aranzadik eta Gaztekutxak antolatzen dituzten beste batzuei buruzkoak ere, ikus IBAÑEZ ETXEBERRIA, A., CORREA GOROSPE, J.M. eta AGIRRE MAULEON, J. Auzolandegia ikaskuntzako testuinguru gisa. Comunicación y Pedagogía, 175 zk., 2001, 85-89 orr.

ros, lo cual elimina esa faceta "*guerrera*" de dicha fachada norte. Así mismo se identifican los modillones que recorren todas las fachadas como los apoyos del cadahalso de madera que en tiempo de guerra se instalaba en lo alto de los muros y desde donde se defendían los habitantes arrojando "*agua hirviendo o hierro fundido*". En siguientes apartados defenderemos que dichos modillones o ménsulas sí servían de apoyo a una galería cubierta pero vinculada al espacio doméstico y no al defensivo. Sobre la distribución interior concluyen indicando que sufrió modificaciones a partir de la segunda mitad del siglo XV, tras el derribo llevado a cabo por la Hermandad.

Todas la referencias bibliográficas anteriormente descritas tienen de común la inexistencia de referencias históricas sobre los habitantes del Iturriotz y la evolución histórica del edificio. Ante este vacío de información se describe el inmueble atendiendo al contexto general de la historia de Gipuzkoa y a las tipologías arquitectónicas generalizadas en la Historia del Arte. También se coincide en que el edificio fue afectado por el proceso de destrucción de torres realizado por la Hermandad de Gipuzkoa en la segunda mitad del siglo XV.

5.1.2. Recuperación e investigación del patrimonio

En el año 2000 se dio comienzo a una fase de investigaciones entorno a Iturriotz enmarcada en un contexto de recuperación del patrimonio. Con este objetivo la Obra Social Kutxa en colaboración con el Ayuntamiento de Oiartzun y la Sociedad de Ciencias Aranzadi organizó un Campo de Trabajo Gaztekutxa para jóvenes guipuzcoanos. Mediante esta actividad jóvenes universitarios, pertenecientes a la Escuela de Arquitectura de la Universidad del País Vasco y a la Facultad de Humanidades de la Universidad de Deusto-Donostia, tuvieron la posibilidad participar en un programa de estudio y recuperación del patrimonio cultural. Gracias a su labor desinteresada se pudieron eliminar los elementos constructivos, tabiques, remozados, mobiliario, que situados en el interior del edificio impedían el estudio de sus paramentos y estructuras originales. Esta intervención fue acompañada de un programa educativo destinado a formar a los jóvenes en el conocimiento y análisis de los bienes inmuebles[6].

Paralelamente a la intervención de Gaztekutxa se acometió en el entorno exterior del palacio el derribo de las construcciones, cobertizos y chabolas, que habían sido adosados a las fachadas del palacio durante la segunda mitad del siglo XX. La recuperación del entorno fue posible gracias al programa de eliminación de construcciones degradantes del patrimonio Cultural puesto en marcha por el Centro de Patrimonio Cultural del gobierno Vasco.

En el año 2001 se procedió a la realización de una intervención arqueológica en el solar de Iturriotz Torrea, el inmueble y su solar son propiedad del Ayuntamiento de Oiartzun quien solicitó a la Sociedad de Ciencias Aranzadi un proyecto de intervención arqueológico. Alex Ibañez y Juantxo Agirre-Mauleon se responsabilizaron de la dirección de los trabajos. Tanto el edificio como su entorno inmediato habían sido ca-

6. Para mayor información acerca de este proyecto y de su programa educativo, así como de otros que organizan Aranzadi y Gaztekutxa, vid. IBAÑEZ ETXEBERRIA, A., CORREA GOROSPE, J.M. y AGIRRE MAULEON, J., El campo de trabajo como contexto de aprendizaje. Comunicación y Pedagogía, n.º 175, 2001, pp. 85-89.

Gaztekutxaren parte hartzearekin batera, jauregiaren inguruan eraikinak, ukuiluak eta txabolak botatzeari ekin zioten, hauek guztiak XX. mendearen bigarren erdialdean fatxadari erantsiak. Hori guztiaz gain, ingurua berreskuratu ahal izan zen Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zentroak abian jarri zuen elementu itsusgarriak ezabatzeko programaren barruan.

2001. urtean indusketa arkeologikoa egin zen Iturriozko Dorrearen orubean. Eraikina eta orubea Oiartzungo Udalaren jabetzakoak dira, zeinak Aranzadi Zientzi Elkarteari ekintza arkeologikoa aurrera eramateko proiektua eskatu zion. Alex Ibañezek eta Juantxo Agirre-Mauleonek hartu zuten euren gain lanak zuzentzeko ardura. Eraikina nahiz ondoko ingurua 'Zona de Presunción Arqueológica' gisa kalifikatuak ziren, ezinbesteko baldintza baita zorupea erasan aurretik, dagokion ekintza arkeologikoa egitea[7].

Esku hartze arkeologikoa, eraikinaren barnealdean zein kanpoaldean indusketa batzuk egitea izan zen, eta horien bitartez orubeko gordailu arkeologikoaren kalitatea eta kontserbazio-egoera zehaztu nahi zen. Indusketen kokapen zehatza 6.6. ataleko indusketa-planoan jasota dago. Lortu ziren emaitzek frogatu zuten zaharberritzeek jatorrizko zoruaren desagertzea ekarri zutela. Kanpoaldean, indusketei esker egin ahal izan zen eraikinaren zimenduak dokumentatu eta mortero-karea atera ahal izan zen, karbono-14aren bidez datazioa egin eta azterketa fisiko-kimikoa egiteko. Orubearen iparraldean, berriz, 5.6. atalean zehaztu dugun eraikin erantsiaren horma-egiturak dokumentatu ahal izan ziren. Parte hartze arkeologikoaren beste helburuetako bat, Erdi Aroko eta Gipuzkoako XVI. mendearen hasierako arkitekturaren azterketan eta ikerketan aurrera egitea zetzan, horretarako Arkeologiak beste esparru zaharrago batzuetan erabiltzen dituen bitartekoak baliatu zirelarik.

Azkenik, eta 2003 Manuel Lekuona bekari esker, berau Alvaro Aragón-ek irabazia, osatu ahal izan da ikerketaren lehen fasea, hain zuzen ere Iturriotzi buruz bildu den dokumentazio berri ugariri esker.

Ikerketa-lanak aurrera darrai eta eraikinean luze baino lehen egingo diren zaharberritze lanetan datu berriak eskuratuko dira, beti ere hasiera eman zaion ikerketa-bide honetan aurrera egiteko helburua betetzearren.

5.2. EGITURAZKO ELEMENTUAK

Eraikinak 140 m^2-ko oin angeluzuzena du eta egiturari dagokionez, berau kargako perimetro-pareten at barnean egurrezko egitura eramailean gorpuzturik dago. Hormek metro bateko lodiera dute eta harlanduzkoak eta silarrizkoak dira, baina fabrikazioaren kalitatea hormatalen eta fatxadaren garrantziaren baitakoa da. Horrela, fatxada nagusiak ondo landutako silarriak ditu, eta iparraldeko paretan, aldiz, silarria kalitate

7. EHAA, 208 zk. 1997ko urriaren 20a

lificados como Zona de Presunción Arqueológica y previo a la realización de cualquier afección al subsuelo era preceptivo una intervención arqueológica[7].

La intervención arqueológica consistió en la apertura de una serie de sondeos distribuidos en el interior y exterior del edificio, mediante los mismos se intentaba determinar la calidad y conservación del depósito arqueológico en el solar. El emplazamiento de los sondeos se recoge en el plano de la excavación del apartado 6.6. Los resultados obtenidos mostraron que en el interior del inmueble las sucesivas reformas de su solera habían supuesto la desaparición de los suelos originales. En el exterior el emplazamiento de los sondeos permitió documentar la cimentación del edificio y extraer muestras de argamasa para su datación por Carbono 14 y para su estudio físico-químico. En la zona norte del solar se documentaron estructuras murarias correspondientes a la construcción anexa detallada en el apartado 5.6. Avanzar en las líneas de investigación de la arquitectura medieval y de principios del siglo XVI en Gipuzkoa, aplicando los recursos que la Arqueología utiliza en otros ámbitos cronológicos más antiguos, era uno de los objetivos de la intervención arqueológica.

Finalmente y gracias a la convocatoria de la beca Manuel Lekuona 2003, que fue concedida a Alvaro Aragón, se ha podido completar esta primera fase de la investigación con la inédita y abundante documentación histórica acerca de Iturriotz.

El proceso de investigación continúa y en el transcurso de las próximas obras de rehabilitación del edificio se obtendrán nuevos datos para continuar con la línea de investigación ya iniciada.

5.2. ELEMENTOS ESTRUCTURALES

El edificio presenta una planta rectangular de 140 m^2 y su estructura se materializa a través de muros perimetrales de carga sobre los que descansa la gruesa viguería de madera que soporta los suelos de habitación. Sus muros presentan un grosor de un metro y se realizan en sillería y sillarejo, pero la calidad de su fábrica depende de los lienzos de muro e importancia de la fachada. De este modo su fachada principal presenta sillares bien labrados y la fachada norte sillarejo de peor calidad e incluso lienzos de mampostería. También es necesario señalar que los sillares de mayores dimensiones y la caliza de mejor calidad se encuentra en las plantas inferiores y en la segunda planta se utiliza una caliza más veteada y de menor tamaño.

La materia prima empleada para su fábrica es la caliza, fundamentalmente la jurásica aunque en sus hiladas más inferiores existen ejemplos de sillares de calizas cretácicas[8]. Los elementos arquitectónicos insertados en los lienzos de los muros como vanos, arcos, alacenas, chimenea, fregaderos, etc., están todos realizados en el mismo tipo de areniscas paleozóicas. Esta distribución de la materia prima empleada es una constante a lo largo de toda la construcción.

7. B.O.P.V. Nº. 208 de 30 de octubre de 1997
8. Para mayor información se remite desde estas líneas al estudio geológico del apartado 6.2. realizado por Jose Angel Torres.

txarragokoa da, baita harlangaitz-atalak ere. Halaber, azpimarratu behar da silarririk handienak eta kare-harririk onenak beheko solairuetan daudela eta bigarren solairuan, berriz, kare-harri zaindunagoa eta txikiagoa baliatu dela.

Fabrikazioan erabili zuten lehengaia kare-harria da, nagusiki jurasikoa, nahiz eta ilararik beherakoenetan kretazikoko kare-harri harlandu batzuk ere badituen[8]. Hormataletan elementu arkitektonikoak, baoa edota kofadurak, arkuak, arasak, tximinia, konketak, harraskak, e.a., den-denak kare-harri paleozoiko berarekin eginak daude. Erabili zen lehengaiaren banaketa konstantea da eraikin osoan.

Eraikineko hormen altxaera hamabi metrokoa da, honela banaturik: sei metro beheko oinean, lau metro lehen solairuan eta bi metro bigarrenean. Nolanahi ere, esan behar da altueraren banaketa hau jatorrizko banaketari dagokiona dela, oraingoa eraikin barruan beranduago egin zen birmoldaketa baten ondorioz egindakoa baita. Zaharberritze honek ez zuen kontuan izan jatorrizko antolaketa eta, ondorioz, bao asentatuen brinbelak altxatuta, tximiniako janben abioa lekuz kanpo kokatu eta egungo barruko egurrezko eskailera beheko oineko sarrerako arku bat takatzea eragin zuen aipaturiko zaharberritzeak. Elementu arkitektoniko hauek markatzen dituzten erreferentziez gain, lehen solairuko zolatak eta solibajeak ez daude perimetroko karga-horman horretarako prestatzen den irtengune korrituan. Gaur egungo egurrezko egituraren zati bat XVII. mendearen amaiera aldean data daiteke, nahiz eta hurrengo mendeetan hainbat eta hainbat aldaketa egin izanaren ondorioz, lehengaiaren kalitate eskasak eraikinaren gainerako diseinuarekin nabarmenki kontrastatzen duen.

Egungo estalkia ere ez da jatorrizkoaren neurri eta doiketa berekoa, eta ondorioz bi xurrutarriak desdoiturik geratu dira. Teilatuak lau isuri ditu eta lata gaineko teila arabiarrezko estalkiak korbatoiak edo egur horizontalak ditu angeluetan ertzak zurruntzeko.

Atal honetan aipatu behar den azken elementu arkitektonikoa fatxada nagusiko albo bateko espoloiarena da, haizetatik babesteaz gain, hasiera batean eraikineko fatxadak zeharkatzen zituen galeria estaliaren hegalkina bermatzen zuena[9]. Azpimarratu behar da Iturriotz jauregiak barnean egitura eramailea izateaz gain, kanpoaldetik duen ezaugarririk nabarmenena lehen solairuaren parean mendebaldeko, hegoaldeko eta ekialdeko fatxadak zeharkatzen zituen galeria zela. Espoloiko baoek galeriaren egurrezko egitura ainguratzeko balio zuten eta argi markatzen dute hegaldia, guztira metro eta erdi irteten baitzen fatxadatik. Horrelako egitura eraikinaren jatorrizko diseinuan aurreikusi zen eta horregatik hiru fatxadetan zehar banatzen dira erregularki harrizko mentsula sendoak, txarrantxak eta habeak bermatzeko. Deigarria da horietako batzuen gainean burdinazko beso sendoak daudela, ainguraketa are eta gehiago

8. Informazio gehiago izateko jo ezazu 6.2. atalean Jose Angel Torresek egindako azterketa geologikora.
9. Ikus beraren argazkia 72. orrialdean.

El alzado de los muros del edificio es de doce metros, distribuyéndose del siguiente modo: seis metros en la planta baja, cuatro metros en la primera planta y dos metros en la segunda. Ahora bien, es necesario advertir que esta sucesión de alturas es la que se corresponde con la distribución original ya que la actual responde a una remodelación posterior del interior del edificio. Esta reforma no observó la organización original y en consecuencia los umbrales de los vanos asiento quedaron sobrelevados, el arranque de las jambas de la chimenea de la segunda planta descolgado o la actual escalera interior de madera supuso el tapiado de uno de los arcos de acceso en la planta baja. Además de las referencias que marcan estos elementos arquitectónicos, la solera y solivaje de la primera planta no descansan sobre el resalte corrido que a tal efecto se dispone en el muro perimetral de carga. La mayor parte de la actual estructura de madera se puede datar a partir de finales del siglo XVII aunque con numerosas modificaciones de los siglos posteriores. La escasa calidad en la talla y diseño de la materia prima, contrasta enormemente con el resto del edificio, correspondiéndose claramente con una menos ambiciosa reconstrucción posterior.

La cubierta actual tampoco responde en dimensiones y ajuste en altura de la original, en consecuencia las dos gárgolas existentes han quedado desajustadas. El tejado presenta cuatro vertientes y cubierta de teja árabe sobre lata, en sus ángulos se disponen de cuadrales o maderos horizontales para rigidizar las esquinas.

El último elemento estructural a comentar en este apartado es el potente espolón lateral de la fachada principal que además de tener una función de paraviento tenía la función de soporte para el voladizo de la galería cubierta que originalmente recorría las fachadas del edificio[9]. Es preciso subrayar que el palacio de Iturriotz además de poseer una estructura portante interior en madera, por el exterior su elemento más característico sería la galería que a nivel de la primera planta recorrería las fachadas oeste, sur y este. Los huecos existentes en el espolón servían para el anclaje del armazón lígneo de la galería y marcan claramente la anchura de su vuelo, en total se despegaba metro y medio de la línea de fachada. Semejante estructura estaba prevista en el diseño original del edificio y por ello a lo largo de esas tres fachadas se distribuyen regularmente unas recias ménsulas de piedra en las cuales se apoyaban las tornapuntas y las vigas durmientes. Llama la atención que sobre algunas de ellas se disponen unos gruesos brazos de hierro con el objetivo de asegurar aún más el anclaje. La cumbrera de la cubierta de la galería quedaba protegida del agua gracias a la cornisa corrida ubicada en la terminación de la primera planta[10].

La intervención arqueológica ha permitido documentar aspectos de la cimentación, habiendo llegado en la excavación hasta una cota de máxima profundidad de 37,37 metros, es decir, en el proceso arqueológico se ha constatado que los cimientos del palacio se introducen en el subsuelo por lo menos hasta dos metros de profundidad desde la cota de la solera actual. La cimentación observa la línea de los muros de las

9. Obsérvese la fotografía de la página 72.

10. Este tipo de cornisa corrida también se documentan en otros edificios de la época, por ejemplo en la denominada casa Portalondo también denominada Torre de los Gentiles situada en el casco urbano de Hernani o en el palacio Lili de Zestoa.

ziurtatze aldera. Lehen oinaren amaieran kokaturik zegoen erlaitz korrituak, galeriako estalkiaren gailurra euritatik edo uretatik babesten zuen[10].

Esku hartze arkeologikoak zimenduari buruzko zenbait alderdi dokumentatzeko aukera eman du; indusketa, 37,37 metroko sakonerako kotara iritsi da, hau da, prozesu arkeologikoan konstatatu da jauregiko zimenduak zorupean, gutxienez, bi metro sartzen direla egungo orubearen kotatik azpirantz. Zimenduek fatxadetako hormen lerroa jarraitzen dute, aparejuaren ezaugarriak ez du zimenduetan zapatarik eta jatorri kuaternarioko buztin alubialetan aldez aurretik egindako zangetan sarturik daude.

5.3. ELEMENTU ARKITEKTONIKOAK

Iturriozko jauregiaren elementu arkitektonikorik garrantzitsuenak sarbideetako arkuak nahiz baoak edota kofadurak dira. Denak hareharrizko harlandu paleozoikokoak dira (kare-harria baina errazago lantzen baitzen) eta era irregularrean banaturik daude fatxadetan zehar. Bao-mota desberdinak xehetasun osoz jasorik daude atzeko eranskineko atal grafikoan.

Sarbideak kanpora ireki eta hauek erdi-puntuko arku zuzenean, barnealdera deskargako arku beheratuen bitartez garatzen dira. Horrela, beheko oinean sarbide nagusia nabarmentzen da, zortzi dobela eta 2,5 x 1,5 metro zabal den argia duen hari handi batekin eta fatxadaren HM-ko muturrean zazpi dobela dituen erdi-puntuko beste arku bat dago. Kanpotik lehen solairuan sartzeko hegoaldeko fatxadari itsatsia patina edota harrizko eskailera dago, beste arku zuzen batean amaitzen dena. Halaber, lehen oinean, fatxadaren iparraldeko muturrean hareharrizko silarrizko bloke handi bat jarrita, leiho bilakatu zuten sarbidea dago estalirik. Bertatik egurrezko galeria batera iristen zen, egun desagertua dagoena, horregatik hartzen da sarbidetzat eta ez leihotzat.

Baoak goiko oinetan irekitzen dira eta barrualdean harrizko eserlekuak dituzten bikiak nabarmentzen dira, horien ondoan bao sinpleak daude, erdi-puntuko arkuan eta arku konopialean nahasian. Denek dute barnealdea beheratutako arkutan erremataturik. Eraikinean denboran zehar egin diren zaharberritzeek aldatu egin dituzte jatorrizko bao batzuk; hegoaldeko fatxadan ikus dezakegu bigarren oineko leihoari silarriak kendu dizkiotela eta hori dela kausa ezin dugu jakin konopiala edo erdi-puntukoa zen. Atzeko fatxadan jarraituz, argi ikusten da trakets egindako kofadura batek bao bat erasana duela, beste aldeko muturrean silarrian kateatutako bao zuzen batek eraikinaren gainerako tipologiarekin kontrastea egiten duela; horrek guztiak geroago egindakoa dela esateko bidea ematen digu. Ez dakigu, lehenago, puntu honetan bertan bao sinplerik izan ote zen.

Gezileihoak beheko oinean bakarrik dokumentatzen dira eta simetrikoki daude sarbideen bi aldeetan. Sarrera nagusiaren bi aldeetan daudenak nabarmentzen dira kalitateagatik eta dotoreziagatik.

10. Mota honetako erlaitz korritua garai hartako beste eraikin batzuetan ere agertzen da, esate baterako Portalondo deritzan etxean, berau Jentilen Dorrea ere deitua, Hernaniko hirigunean, eta baita Zestoako Lili jauregian ere.

fachadas, no presenta zapatas de cimentación y está introducida previa excavación de una zanja en las arcillas aluviales de origen cuaternario. El aparejo de la cimentación es similar al de los muros en alzado salvo que los mampuestos no están tan trabajados ni engarzados como en las fachadas. Se han recogido muestras de argamasa para su estudio.

5.3. ELEMENTOS ARQUITECTÓNICOS

El palacio de Iturriotz presenta como elementos arquitectónicos mas destacables los arcos correspondientes a los accesos y a los vanos. Todos ellos están realizados en sillería arenisca paleozoica (más fácil de trabajar que la caliza) y se distribuyen de forma irregular por las fachadas. La totalidad de las diferentes tipologías de huecos son recogidas al detalle en el apartado gráfico del anexo final.

Los accesos se abren al exterior en arcos adovelados de medio punto que al interior se desarrollan mediante arcos rebajados de descarga. Así en la planta baja destaca el acceso principal con un amplia rosca de ocho dovelas y una luz de 2,5 m x 1,5 m. de anchura, en el extremo SW. de la fachada sur se dispone otro arco de medio punto con siete dovelas. Para el acceso desde el exterior a la primera planta existe adosado a su fachada sur un patín o escalera exterior de piedra que culmina ante otro arco adovelado. También en la primera planta y en el extremo norte de su fachada principal, junto al ángulo formado por espolón lateral, se camufla un acceso que posteriormente fue reconvertido en ventana mediante la colocación de un gran bloque de sillería arenisca en el tercio inferior de su hueco. A través de esta puerta se accedía a la galería exterior realizada en madera y que en la actualidad no existe, por ello es considerado como acceso y no como ventana.

Los vanos, excepto los asaeteados, se abren en las plantas superiores y destacan los geminados que al interior incorporan asientos de piedra. Junto a ellos existen los vanos simples indistintamente en arco de medio punto o conopial. Todos ellos se presentan el interior rematado en arco de descarga y todos los geminados necesitarían un parteluz aunque en la actualidad han desaparecido los de la primera planta. Las reformas que ha sufrido el edificio a lo largo del tiempo también han alterado algunos de los vanos originales, en la fachada sur podemos observar como la ventana situada en su segunda planta ha sido desposeída de sus sillares y debido a ello no podemos saber si era conopial o de arco de medió punto. Continuando por la facha trasera, se aprecia claramente como la burda apertura de un nuevo hueco ha afectado a un vano, en el extremo opuesto un hueco adintelado en sillería encadenada, que contrasta con la tipología del resto del edificio y que nos permite afirmar que se corresponde a una apertura posterior. El edificio original no tenía este hueco para balcón. Desconocemos si previamente en este mismo punto existió un vano de tipología simple.

Las aspilleras o saeteras sólo se documentan en la planta baja y se sitúan simétricamente a ambos lados de los accesos, destacan por su calidad y monumentalidad las situadas a ambos lados del acceso principal.

A continuación se detallan la distribución de los huecos por plantas y orientación.

Jarraian baoen banaketa zehazten da oinka eta orientazioaren arabera.

Baoen banaketa solairuka*			
	Beheko oina	*Lehen oina*	*Bigarren oina*
Sarbideak	3	2	-
Bao sinpleak	-	2	4
Bao bikiak	-	2	1
Gezileihoak	4	-	-
Komuna	-	1	-
* Ez dira zenbatu jatorrizkoak ez diren baoak, alegia, beranduago ireki zirenak.			

Baoen banaketa fatxadaka*				
	Ekialdeko fatxada	*Egoaldeko fatxada*	*Mendebaldeko fatxada*	*Iparraldeko fatxada*
Sarbideak	1	2	2	-
Bao sinpleak	2	3	1	-
Bao bikiak	-	2	1	-
Gezileihoak	2	0	2	-
Komuna	-	-	-	1
	% 26,3	% 36,8	% 31,5	% 5,2
* Ez dira zenbatu jatorrizkoak ez diren baoak, alegia, beranduago ireki zirenak.				

Hegoaldeko fatxadari itsatsiriko patina edo harrizko kanpoaldeko eskailera da Iturriozko dorretxea definitzen duten beste elementu arkitektonikoetako bat, zeina erdi aroko ereduen ondorengoa eta defentsa-lanak egiteko izan arren, sarri gehitua izan baitzen XV. mendearen amaiera aldeko eta XVI. mendeko hasierako jauregietan. Iturriotzen nabari da eskaileran abioan bao-burua ere baduelako patinera sartzeko itxiera gisa. Sarrera buruko mailak eta erremateak hareharrizko silarrizkoak dira.

5.4. EROSOTASUNA

Erosotasuna da Iturriozko Dorrearen kontzeptu arkitektonikorik nabarmenena. Gaur egun hain oinarrizkoak diren etxe barruko tenperatura, elikagaien prestaketa edo metaketa eta ur zikinen hustuketa bezalako kontzeptuak, bere hastapenetik izan ditu kontuan eraikin honen diseinuak. Hori guztia, jakina, nagusiek bizilagun gehienen aldean gozatzen zituzten erosotasunaren lekuko da. Eraikinen azterketa egiteko orduan, gehienetan egiturari eta tipologiari ematen diogu balioa edo elementu horiek aztertzera mugatzen dugu gure egitekoa, kontuan izan gabe bertakoen eguneroko bizimodua erosoago izatera bideraturik zeudela. Iturriotzen erosotasunaren lekuko garrantzitsuak topatu ditugu eta ikuspegi honetatik eraikinak Gipuzkoako sukalde, arasa eta harraska-konketa multzorik zaharrenetakoa dauka.

5.4.1. Argia eta tenperatura

Elementu arkitektonikoei eskainitako atalean ohartu ahal izan garenez, eraikinaren baoak hegoaldera eta mendebaldera begira irekitzen dira, argia eta eguzkiaren beroa

Distribución de los huecos por plantas*			
	Planta baja	*Primera planta*	*Segunda planta*
Accesos	3	2	-
Vanos simples	-	2	4
Vanos geminados	-	2	1
Aspilleras	4	-	-
Letrina	-	1	-
* No se incluyen huecos no pertenecientes al edificio original y abiertos posteriormente.			

Distribución de los huecos por orientación*				
	Fachada Este	*Fachada Sur*	*Fachada Oeste*	*Fachada Norte*
Accesos	1	2	2	-
Vanos simples	2	3	1	-
Vanos geminados	-	2	1	-
Saeteras	2	0	2	-
Letrina	-	-	-	1
	26,3 %	36,8 %	31,5 %	5,2 %
* No se incluyen huecos no pertenecientes al edificio original y abiertos posteriormente.				

El patín o escalera exterior de piedra adosada a su fachada sur es otro de los elementos arquitectónicos definitorios de Iturriotz que, aunque heredado de modelos medievales y en origen vinculado a funciones defensivas, es incorporado con asiduidad a esta primera generación de palacios rurales de finales del siglo XV y principios del XVI. En ejemplo de Iturriotz se distingue porque en el arranque de las escaleras también se dispone de un hueco adintelado a modo de cerramiento del acceso al patín. Los peldaños y remates del acceso adintelado están realizados en sillería arenisca.

5.4. EL CONFORT

El confort es uno de los valores más destacables del concepto arquitectónico y de vivienda del palacio de Iturriotz. Aspectos hoy en día tan básicos como la temperatura interior de la vivienda, el cocinado de los alimentos o el almacenaje y evacuación de las aguas son incorporados de modo novedoso al diseño del edificio. Ello es lógicamente testimonio de las comodidades que disfrutaban sus propietarios a diferencia de la casi totalidad de sus vecinos. Casi siempre en los estudios de los edificios nos ceñimos a valorar sus aspectos estructurales y tipológicos sin valorar que los mismos estaban destinados a hacer más llevadera la vida diaria de sus habitantes. En Iturriotz hemos encontrado importantes testimonios del confort y en este ámbito el edificio presenta uno de los conjuntos más antiguos de hogares, alacenas y fregaderos-aguamaniles (harraskak) de Gipuzkoa.

5.4.1. Luz y temperatura

Como se ha podido observar en el apartado de elementos arquitectónicos los huecos de la vivienda se abren a hacia el sur y oeste, intentando el aprovechamiento má-

ahalik eta gehien aprobetxatzearren. Fatxada horietan irekitzen dira baorik handienak, bao bikiak eta horietarantz daude sarbide nagusiak. Iparraldea da gunerik trinkoena eta ez du inolako baorik edota kofadurarik. Hiru bao asentatu dira kanpoko argitasuna gozatu nahiaren lekuko gisa.

Hasiera batean, argitasuna txikiagoa izango zen lehen solairua galeria batek zeharkatzen baitzuen hiru fatxadatan zehar, honek esan nahi du oin horietako baoak galeria horretara irekitzen zirela eta kanpoaldeko estalki hori zela-eta, barruan argitasuna askoz ere txikiagoa zela. Halere, galeria honek lehen oinean erabilgarri zen espazioa 60 m^2 handitzea zekarren[11]. Gune honetan, euritatik gordeta egotean, ekintza edo jarduera asko egingo ziren urtean zehar argi naturala baliatu eta, bidenabar, etxebizitzaren erosotasunari beste kalitate bat eman asmoz.

5.4.2. Etxebizitzak

Eraikinaren barnealdea tximinia handi baten inguruan antolatua dago, goialdeko bi oinak zeharkatu eta horietako bakoitzean bizitza bana duena. Kokapena estrategikoki pentsatua dago, ipar-ekialdeko horman baitago, eta fatxada hau da, kofadurarik ez izan arren, eguraldiaren gogortasuna gehien jasaten duena. Etxebizitzen ikuspegi orokorra 272-73 orrialdeetan dago erreproduzituta.

Tximiniaren eta bizitzen bitartez neguko hilabeteetan goialdeko oinetako tenperatura bermatzen zen, behealdeko ukuiluko abereek botatzen zuten beroaz gehitua.

Oinarrizko beste funtzioa elikagaiak prestatzea zen, horrela goialdeko solairuetan kokatzen ziren bizitzak, erosotasun handia garai haietarako, berau izaki XVI. mende osoan bizilagunek eraiki zituzten oin bakarreko baserrietatik bereizten zuen ezaugarrietako bat. Horrela, bada, lehenengo baserri haietan sua zoru gainean pizten zen, gainean laratza zuela[12].

Halere, bizitokia eraikinaren lehen oinean kokatzeak sute-arrisku handia zuen eta horregatik diseinatu behar ziren hutsik egin gabe errekuntza-kamera eta tximinia, barneko egurrezko egitura sutatik isolatua gera zedin. Horrela, tximinia eta bizitza altueran lerrokatzen ziren, kanoi eta tiro bera zituztelarik, iparraldeko harri-hormaren fabrikan krokatuz eta eraikinaren barnealdeko egurrezko egiturarekin inolako egitura-harremanik gabe. Lehen oineko bizitzako zorua hiru lobuludun mentsula baten gainean dago, eta gainazala harrizko zazpi losa handik osatzen dute[13]. Ez dakigu, ziur, egin

11. Kalkulua hegaldiko 1,5 metroak aplikatuta egiten da, argi eta garbi alboko espoloiaren ainguraketak markatzen dituena, harrizko ilarek hiru fatxadetan garaturik.
12. SANTANA, A.: La arquitectura del caserío en Euskal Herria. Historia y Tipologia. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2001, 159 orr.
13. Antzinako sukalde hegalkina lehen oinean kokatua dokumentatua dago Zeraingo Jauregi baserrian, lehenago Zeraindarren Dorrea kokatzen zen orubean. Euskarria, hegalki hiru lobuludunak, erabili zen hareharrizko silarriak eta kronologiak Iturriotzetik oso hurbil kokatzen gaitu. Alderik nagusiena hegaldia litzateke, Zeraingoak kanpoaldera du eta Iturriotzek, aldiz, barrualdera, lehenengoan sutearen aurkako babesa handiagoa da, eta bigarrenean etxe barruan bero handiagoa eragiten du. SANTANA, A.: *La arquitectura del caserío en Euskal Herria y tipología*. Vitoria-Gasteiz: Eusko jaurlaritza, 2001, 293 orr.

ximo de la luz y el calor solar. Es en estas fachadas donde se abren los vanos de mayor amplitud, los vanos geminados y hacia donde están volcados sus accesos principales. El norte es la zona más compacta y no presenta vano alguno. Los tres vanos asientos son reflejo de este deseo de gozar de la iluminación exterior.

Iluminación que en un origen sería menor ya que la primera planta estaba recorrida por una galería cubierta en tres de sus fachadas, esto quiere decir que los vanos de dichas plantas se abrían a dicha galería y que debido a esa cubierta exterior la iluminación interior era mucho menor. Sin embargo esta galería suponía ampliar en casi 60 m^2 el espacio utilizable en la primera planta[11]. Este espacio al estar a resguardo de la lluvia permitiría muchas actividades a lo largo del año aprovechando al máximo la luz natural y enriqueciendo considerablemente el confort de la vivienda.

5.4.2. Los hogares domésticos

El espacio interior del edificio está organizado entorno a una gran chimenea que recorre las dos plantas superiores y que presenta sendos hogares en cada una de ellas. Su emplazamiento está estratégicamente concebido ya que se inserta en el muro norte, cuya fachada es la más expuesta a las inclemencias metereológicas del invierno. Una visión global de los hogares se reproduce minuciosamente en las páginas 272-73.

Mediante la chimenea y los hogares se garantizaba durante los meses de invierno la temperatura necesaria de las plantas superiores, temperatura que también era acrecentada con el calor emitido por los animales domésticos situados en la cuadra de la planta baja.

Otra función primordial era el cocinado de los alimentos, de este modo en las plantas superiores del edificio se ubicaban los hogares, una gran comodidad para la época y que le diferenciaba de los hogares en planta baja de los caseríos que durante todo el siglo XVI construyeron sus vecinos. En efecto en estos caseríos el fuego se enciende directamente en el suelo y sobre él cuelga la cadena del llar[12].

La ubicación del hogar en la primera planta del edificio entrañaba altos riesgos de incendio y debido a ello fue necesario un completo y desarrollado diseño del hogar, de la cámara de combustión y de la chimenea, para que la estructura lígnea del interior quedara aislada del fuego. De este modo los dos hogares se alinean en altura, compartiendo el cañón y tiro, engarzándose en la fábrica de mampostería del muro norte y sin ninguna relación estructural con el armazón lígneo del interior del edificio. El suelo del hogar de la primera planta se asienta sobre una ménsula trilobulada cuya superficie superior está formada por siete grandes losas de piedra[13]. Desconoce-

11. El cálculo se realiza aplicando los 1,5 m. de vuelo, que claramente marcan los anclajes del espolón lateral, a su desarrollo por las tres fachadas que presentan las hiladas de canes de piedra.

12. SANTANA, A.: *La arquitectura del caserío en Euskal Herria. Historia y tipología*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2001, pág.159.

13. Una cocina antigua en voladizo y ubicada en la primera planta también se documenta en el caserío Jauregi de Zerain, en el solar donde anteriormente se ubico la Torre de los Zerain. Su soporte en voladizo trilobulado, la sillería arenisca empleada y la cronología nos sitúan ante un referente muy próximo al de Iturriotz. La principal diferencia sería que en Jauregi el vuelo es hacia el exterior del edificio y en Iturriotz hacia el interior, en el primero se asegura una mayor protección contra el fuego y en segundo un mayor aporte de calor al interior de la vivienda. SANTANA, A.: *La arquitectura del caserío en Euskal Herria. Historia y tipología*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 2001, pág. 293.

zutenean aipatu harlanduzko losa horiek adreiluz estaliak ote ziren, izan ere etxe barruko konponketa desberdinek tximinia-bizitza osatzen zuten harrizko elementu batzuetan aldaketa handiak egin baitziren.

Lehen solairuko bizitzak harlanduzko bi janba landu zituen, tximinia-bizitzako sarrera alde batetik markoztatuz. Janba hauek harlanduzko zoruaren kanpoaldeko mugaraino iristen ziren eta altueran kanpaiarekin krokatzen ziren, baoetaraino. Zoritxarrez, gerora egin ziren berrikuntzek apurtu egin zituzten behe solairuko janba hauek, nahiz eta oraindik ere harlanduen abioak ikus daitezkeen. Bigarren oinean janba bat gordetzen da, kalitate handiz landua eta eskantzu alakatuak dituena, harlanduzko bost piezatan egina, 0,50 m. ateratzen da kargamurruen lerrotik. Elementu hau 274 orrialdean xehetasun osoz dokumentatua dago.

Lehen oineko bizitzako kea kanpai handi batek jasotzen zituen, honen aurrealdea propio egindako baoetan krokatu eta desagerturik dauden janben goialdean sostengatzen zen. Kanpaiari esker bideratzen ziren keak eta errekuntzako gasak tximiniaren kanoira. Kanpaiaren aurrealdeak, ziurrenik egurrezkoa izango zenak, beharbada, kanpoaldean txanbrana edota apainduraren bat izango zuen. Goialdeko bizitza txikiagoa zen, tximiniaren kanoi bera zuten eta ziurrenera goialdeak teilatuko latekin konektatzeko kanpaiaz horniturik egongo zen. Tiroa tximiniaren eta kanpaiaren diseinuek erraztuko zuten, gora egin ahala estutuz. Bigarren solairuko bizitza hau bigarren mailakoa zen, baina hau ere bizitoki zen, zalantzarik gabe. Hareharria erabili zuten janbak egiteko, batetik suari kareak baino askoz ere erresistentzia handiagoa ematen ziolako eta, bestetik, lantzeko errazagoa zelako.

5.4.3. Harraskak eta arasak

Azterketan zehar hiru multzo harraska eta arasako multzo bat aurkitu zen perimetroko hormei barrutik itsatsirik. Denak hareharriz eginak zeuden eta eraikinaren fabrikazioari krokatuak; horrela, bada, hormen lodiera aprobetxatuz gehitu zitzaizkion, espazio txiki hauek, biztanleen eguneroko bizimoduaren lagungarri.

Eginkizun zehatzak arropa batzuen garbiketarekin, norberaren garbitasunarekin neurri txikiagoan eta janarien prestaketarekin loturik zeuden. Azpimarratu behar da egun garbitasunez eta gastronomiaz ditugun kontzeptuek ez dutela inolako zerikusirik XVI.[14] mendearen hasierako usadioekin. Bi harraskek ponte txikia dute, barnealdea maldan erortzen zen likidoa kanpora botatzeko, eta biak ontziak jartzeko bi arasarekin osatzen dira. Goiko oineko multzoaren diseinua sofistikatuagoa da, pontearen ondo-ondoan uraren ontzia sostengatzeko aulkia edo bankua baitago, erabilgarritasun handiagoa izateko. Lehen oineko arasa XX. mendean eraberritutako baten azpian aur-

14. BRAUDEL, F.: Civilización material y capitalismo. Barcelona: Labor, 1974, orr. 243. *"...si entraramos como visitantes intempestivos en los interiores de antaño, pronto nos sentiríamos incómodos. Todo lo superfluo que en ellos hay, por muy hermoso que sea - y es a menudo admirable - no nos podría bastar..."*.

mos si en un origen dichas losas de sillería arenisca estuvieron recubiertas de ladrillo porque las diferentes remodelaciones del interior del edificio conllevaron importantes afecciones en parte de los elementos pétreos constitutivos de la chimenea-hogar.

El hogar de la primera planta presentaba dos jambas labradas en sillería arenisca enmarcando lateralmente la boca de la chimenea-hogar. Estas jambas se desarrollaban hasta el límite exterior del suelo de losas y en altura hasta los huecos de engarce de la campana. Desgraciadamente reformas posteriores destruyeron las jambas de la planta baja, aunque todavía se pueden observar los arranques de los sillares. En la segunda planta sí se ha conservado una de las jambas, con una labra de gran calidad y sus esquinales achaflanados, realizada en cinco piezas de sillería arenisca sobresale 0,50 m. de la línea del muro de carga. Este elemento esta documentado al detalle en la página 274.

Los humos del hogar de la primer planta era recogidos por una gran campana, cuyo frontal se engarzaba en los huecos pudo haber existido una chambrana o elemento decorativo labrado en la cara exterior de la campana. El hogar de la planta superior era de menores dimensiones, compartía el cañón de la chimenea y probablemente también dispuso de una campana cuya parte superior conectaría directamente con las latas del tejado. El tiro era favorecido por el diseño de la chimenea y campana, que se estrechan progresivamente en su desarrollo en altura. Este hogar de la segunda planta era secundario pero señala que la misma también fue destinada a vivienda. La arenisca es la materia prima empleada para sus jambas, mucho más resistente al fuego que la caliza y más fácil de labrar.

5.4.3. Fregaderos y alacenas

En el transcurso de los estudios se descubrió un conjunto de tres grupos de alacenas y aguamaniles o fregaderos ocultos en el interior de los muros perimetrales. Todos ellos estaban realizados en piezas de sillería arenisca y engarzados a la fábrica del edificio, de este modo aprovechando el grosor de los muros se incorporan estos pequeños espacios destinados a la vida cotidiana de sus habitantes.

Su funciones concretas son las relacionadas con la limpieza de algunas prendas, limpieza personal en menor medida y elaboración de los alimentos. Hemos de subrayar que los conceptos de higiene y gastronomía que hoy en día observamos no tienen nada que ver con las pautas existentes a principios del siglo XVI[14]. Los dos aguamaniles constan de una pequeña pila con la superficie interior en pendiente para expulsar el líquido derramado al exterior, ambos se complementan con sendas alacenas donde colocan los recipientes. El diseño del conjunto situado en la planta superior es más sofisticado por cuanto inmediata a la pila existe un banco de apoyo para el recipiente del agua, lo que permite una mayor maniobrabilidad. El fregadero de la primera planta se descubrió bajo un remozado del siglo XX que eliminó burdamente el bor-

14. BRAUDEL, F.: *Civilización material y capitalismo*. Barcelona: Labor, 1974, pág. 243. *"...si entraramos como visitantes intempestivos en los interiores de antaño, pronto nos sentiríamos incómodos. Todo lo superfluo que en ellos hay, por muy hermoso que sea - y es a menudo admirable - no nos podría bastar..."*.

kitu zen, eta horrek era traketsean ezabatu zuen pontearen kanpoaldeko ertza. Bi multzo hauek ipar-ekialdeko horman daude kokatuak, gune horretan gutxiago ibiltzen zirenez, hondakin-urak bertan botatzen zituztelarik.

Lehen oineko hegoaldeko horman ere aurkitu zen bi arasak osaturiko multzoa; honen inguruan azpimarratu beharra dago ezen arasa guztien neurrietan, diseinuan, lanketan eta erabili zuten lehengaian dagoen homogeneotasuna. Denek baitaukate beheragune edo jangune bat egurrezko markoa jasotzeko, ate eta erdialdeko arrakala guztiekin bi apal jarri eta espazioa bi gunetan banatze aldera. Arasa hauen barruan ontziak gordeko ziren, garai hartan usuenak zeramikazkoak eta egurrezkoak izaki, nahiz eta metalezkoak ere izan baziren. Zalantzarik ez dago hiru aldetatik harriz itxi eta isolatutako gune edo espazio hauetan hobeto mantenduko zela uraren tenperatura.

Kontuan izanik eraikinak dituen erosotasunak, ez da harritzekoa komun hegalkina izatea. Beronen kokapenik egokiena lehen oinean eta iparraldeko fatxada litzateke, harraskek ura botatzen edo isurtzen alde bera, alegia. Hain justu ere fatxada horren Ekialdeko muturrean zegoen azken komuna, zeina XX. mendeko bigarren erdialdeko materialez egina, fatxadaren lerroan hegalkatzen zen. Bertara iristeko etxea egin zenean horman ate bat edo pasadizo bat zegoen, hareharrizko zabaldura bat dokumentatzen da, berau arku modura irekia alde bateko fatxada horren zabaldura bakarra zelarik. Kokapenari, zabalduraren eta dobelajearen neurriei kasu eginez gero, aipatu komun hegalkinera joateko bidea zela baiezta daiteke[15].

5.4.4. Barruko espazioa

Ez dira ugari barruko espazioaren antolamendua azaltzeko geratu diren erreferentziak eta hori, batetik, jatorrizko eraikinetik perimetroko kargamurruak bakarrik geratu direlako gertatzen da eta, bestetik, barruko bizimodua ezagutzeko gauza interesgarriak islatuko lituzkeen jatorriko egurrezko egitura, XVII. mendearen amaiera aldera desagertu zelako.

Erreferentziarik zehatzenetakoa altueraren banaketak markatzen duena da, horrela goialdeko oinak bizitokitarako ziren eta beheko oinak, berriz, ukuilutarako eta nekazaritzako eta abeltzaintzarako. Beheko oina aireztatzen zen sei metro altu zelako, kanpotik sartzeko hiru zabaldura eta lau gezileiho zituelako. Ukuilu gisa erabiltzen zenez, argitasunak ez zuen lehentasunik, horregatik ez dago baorik.

Oin nagusia edota noblea lehen solairuan dago eta bertara kanpoko eskaileratik iristen zen, ez dakigu, zehazki esateko, barrutik egurrezko beste sarbiderik ba ote zuen. Espazioa antolatzen zuen elementurik garrantzitsuena bizitza da, estrategikoki

15. BARRIO LOZA, J.A.: "*La casa del guerrero. Las torres fuertes*". *Etxea*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia. Cultura Saila. 2002, 15 orr. Dorretxeetan konstatatzen du halaber "*... ladroneras que cumplen otra función más prosaica, la de letrinas...*".

de exterior de la pila. Estos dos conjuntos se sitúan en el muro noreste, zona a la que por ser la menos concurrida son vertidas las aguas residuales.

En el muro sur de la primera planta también se localiza un conjunto formado por dos alacenas, a este respecto es necesario remarcar la homogeneidad de las dimensiones, diseño, labra y materia prima empleada en todas las alacenas. Todas ellas presentan un rebaje destinado a recibir un marco de carpintería de madera con su correspondiente puerta y hendiduras centrales destinadas a insertar una balda interior que compartimenta el espacio en dos alturas. Al interior de estas alacenas se guardarían recipientes, los más usuales de la época eran de cerámica y madera, aunque también los había de metal. Sin duda en estos espacios cerrados, y aislados por tres de sus partes en piedra, se conservaría más constante la temperatura.

